

Euskara Justizia Administrazioan: ibilian aurrera begira



Biltzarra

Aurreko urriaren 25ean eta 26an "Euskara Justizia Administrazioan: ibilian aurrera begira" izeneko Biltzarra egin genuen. Bertan Euskal Herriko nahiz kanpoko adituen iritzia entzuteko aukera izan genuen, eta Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko dauden oztopoak eta tresna lagungarriak aztertu genituen.

Bertan ateratako ondorioen artean azpimarratzekoa da euskararen erabilera sustatzeko zailtasuna. Ahalegin handiak egin dira langileak euskalduntzeko, baina hori ez da behar bezala islatzen hizkuntzaren erabileran. Erronka horren aurrean hainbat irtenbide proposatu dira Biltzar honetan, horien artean euskara erabiltzeko gaitasuna duten profesionalek (Epaile, Fiskal, Idazkari Judizial, funtzionario, abokatu, eta abarrek...) osatutako zirkuituak sortzea, horrek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzerakoan izango lukeen abantailarekin. Dena den, horiek abian jartzeko lege-eragozpenak ere hor daude.

Orain dela 10 urte egin zen gai honen inguruko azken Biltzarra, eta handik hona gauzak hobetu egin direla ere argi geratu da. Lehen baino askoz ere tresna gehiago dauzkagu Justizia Administrazioan euskera erabili ahal izateko. Ea hemendik 10 urtera tresna horiek benetan erabiltzen direla esan dezakegun!

Arantxi Orbegozo

Koro Coca

Justizia Saileko Hizkuntza Normalizatzeko Teknikariak